



Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Ikerketarako 2025eko Laguntzen deialdia

Oinarri espezifikoak

2024ko abenduaren an onartu ziren Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren aurrekontuetan 31.000 euro bideratuko dira guztira ikerketarako laguntzetara, honela banatuta:

- Ikerketa-proiektuetarako laguntzak:
 - 24.000 euro hainbat proiektutan banatzeko.
- Atzerriko Egonaldietarako laguntzak:
 - 1000 euro, bi laguntzatan banatzeko.
- Biltzarretarako laguntzak:
 - 3.000 euro, jasotako eskabideen ezaugarrien eta kopuruaren arabera banatzeko.
- Berrikuntzarako laguntzak:
 - 3.000 euro, jasotako eskabideen ezaugarrien eta kopuruaren arabera banatzeko.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ikerketarako laguntzak arautzen dituzten oinarriekin bat etorritz, honako hau ezarri da:

- Laguntzak aurkezteko epea maiatzaren 19an hasiko da, eta laguntzen arabera amaituko da:
 - Ikerketa-proiektuetarako laguntzak:
 - 2025eko uztailaren 4an, 15:00etan (penintsulako ordua)
 - Atzerriko Egonaldietarako laguntzak:
 - 2025eko irailaren 26an, 15:00etan (penintsulako ordua)
 - Biltzarretarako laguntzak:
 - 2025eko irailaren 26an, 15:00etan (penintsulako ordua)
 - Berrikuntzarako laguntzak:
 - 2025eko uztailaren 4an, 15:00etan (penintsulako ordua)
- Ikerketarako lau laguntza motak emateko behin-behineko ebazpena 2025eko urrian argitaratuko da, eta 5 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko. Behin betiko ebazpena EFEOren urteroko ospakizunean argitaratuko da.